



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-06-04**

VIII. URTEA 2.018. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



HITZA

MANUEL SEGUNDO AIZPURU APAIZA

«Tutsi eta hutuen arteko gorrotoa goikoek piztu zuten, politikari eta militarrek»

BIDEGOIAN 41 urte egin ditu apaizak Afrikan; deskolonizazio garaian iritsi zen Ruandara eta 1994ko genozidioa bertan bizitu zuen 4-5

Lehen Graffiti eta Mural Lehiaketa izango da ekainaren 18an eta 19an

TOLOSA GKo galeriak antolatu du eta sari erakargarriak ere prestatu dituzte; gehienez 20 taldek hartu ahal izango dute parte 3

Lau sukaldari elkartuko dira Gaztelako arkupean

TOLOSA 'Tolosako Azokak+KM 0' ekimenaren baitan Joxean Eizmendik ilarrak sukaldatuko ditu 2

Ina Zeberioaren erailketaren XII. urteurrena

LIZARTZA Bihar Gernikan, erail zuteneko tokian, egingo diote omenaldia, eta etzi, herrian bertan 7

Aurrerakoak Hitza Txapelketan ariko dira gaur

LEITZA Hasi da pilota txapelketa; gaurkoan Ander Gartziarena eta Ander Eskudero infantilek Larrea eta Peña izango dituzte aurkari 6



2010-2011 ikasturterako
AURREMATRIKULA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):

Ile-apainketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):

Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak):

Apainketa Estetika pertsonala

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA, IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 · Tel.: 943-13 42 23 Faxa: 943-89 41 96
012291aa@hezakuntza.net · 20800 ZARAUTZ



Infantilak, Euskadiko txapeldunak

ESKUBALOI ■ 2009/10 denboraldia ez duite hain erraz ahaztuko Tolosa CF taldeko infantilek. Duela bi aste Gipuzkoako Txapelketa irabazi baldin bazuten, iragan asteburuan Euskadikoa ekarri zuten etxera. Bilboko Eskolapioen aurka jokatu zuten Barakaldon finala eta 18-12ko garaipena lortu zuten. Garaipen zapoak jarraipena eduki dezake ekainaren 19an, Tolosan bertan. Egun horretan jokatuko baita Usabal kiroldegian infantilen V. San Juan Torneoa. **HITZA**

TAKE-ko nesken arrakasta

ERREDAKZIOA

Duela lau urte Tolosako saskibaloiak nesken aldeko apustua egin zuen bi talde klubaren barruan sartuz. Ordudanik nesken atalak urtero haziz jarraitu du. Denboraldi honetan tolosarrekin junior mailan debuta egin dute eta esperientzia bikaina izan da.

Denboraldi gogor bati aurre eginaz, Lehen Mailarako igoera lortu dute neskek. Datorren urtean bezaraz, Gipuzkoako mailarik altuenean jokatu dute. Urtean zehar bizitako eboluzioari esker, Naiara eta Kikerren neskek bikain aritu dira denboraldi amaiera honetan eta herriari pozitzela eman diote.

Aldi berean, kadete mailako neskek Lehen Mailan mantentzeko helburua zuten aurtengoan eta egia esan, multzoko ahate itsusia



Naiara eta Kikerren neskek Lehen Mailara igotzea lortu dute. **HITZA**

ziruditen denboraldi hasieran. Aza eta Ioritzek egindako lan handiak, egunetik egunera hobetzea ekarri zuten eta maila mantentzeko play-off-ean Easo ahalguztiduna

kanporatu zuten. TAKEtik esan dutenez, «hau dena Aralar Kiro-lak-en babesari esker» izan da, «beti gure kiroleko harrobia zain-tzen ari baita. Zorionak denek!»

'Tolosako Azokak + KM O' ekimenak jarraipena edukiko du biharkoan. Oraingo honetan lau sukaldari elkartuko dira Gaztelako arkupean. Lehenik ordea, garaian garaiko produktuak erosiko dituzte azokan.

Freskotasunaren aberastasuna

ASIER IMAZ

Joxean Eizmendi haur txiki-ken aita da eta askotan den-ten artean plan bat egiten dute: «Azokara joango gara». Umeek etxean baratza ezaguna dutenez merkatua ez zaie batere arrotza. «Lau gauza erosi eta gero horiekin sukaldian ibiltzen gara pixka bat. Egunerdia poztasunean joaten zaigu».

Baratzetik sukaldera, KM O

Duela bi edo hiru mende, Donostiako Illarra baserria oso ezaguna zen, inguruan zituen baratzetan gehienbat ilarrekin lan egiten zutelako. Gaur egun berri, baserriaren barnean dagoen jatetxeagatik da ezaguna.

Joxean Eizmendi bertako semea da eta baserriko ikasgaiekin egiten du lan: «Jatetxerako etxeko produktuak hartzen ditut egunero. Gurasoek ere horrela egiten zuten, baratzetik zuzenean sukaldera. Produktu freskoak erabiltzen ditugu beti eta freskotasan hori



Tolosako azokan bihar ere jende ugari bilduko da. **A. IMAZ**

aurkitzeko badakizu zer egin behar duzun».

Apirilaren 24az geroztik, freskotasan horri Tolosan KM O deitzen zaio. Izen honen baitako ekimenak hilean behin egiten baldin badira ere, ideia bera, larunbatero larunbatero aurkitzen da Zerkaurian, Tolosako azokan.

Baratza gertu eduki arren, Eiz-

mendik azokaren mundua gogotik maite du: «Ordiziara, Donibane Lohitzunera, Tolosara... Postuak nola jarri dituzten, saltzaileak nongoak diren, zer egiten duten, baratza nola doan... Azokara ez zoaz saltzera edo eroatera bakarrik; sozialki bilera handi bat da. Merkatuen inguruan giro berezi bat sortzen da».

Garaian garaikoa

Tolosako Azokak+KM O ekimena, lehen aipatu bezala, hilean behin burutzen da. Ekainari dagokiona bihar egingo dute. Joxean Eizmendirekin (Illarra jatetxea) batera, Txaro Zapiain (Roxario jatetxea), Hilario Arbelaitz (Zuberoa jatetxea) eta Roberto Ruiz egongo dira Gaztelako arkupean. Lehenik ordea, azokatik itzuli bat emango dute, garaiko produktuak bertan erosteko. Osagai hauekin prestaketa nahi duenak dastatzeko aukera edukiko du amaieran.

Eizmendirentzat horrelako ekimenak «oso onak» dira: «Alde batetik baserriarrei saltzen lagundu nahi diegu, euren produktuak eta lana ez delako behar bezainbeste estimatzen. Beste aldetik, jendea produktuak noiz eta nolakoak diren erakutsi nahi diegu. Azken urteetan, urte guztian zehar produktu berdinak aurki ditzakegu, denetik daukagu. Baina produktu politena, errexena eta egokiena denboraldiko produktua da».

Zer prestatuko duen galdetuta, Eizmendik ez du fantasiako platerarik nahi: «Gure etxean betidanik egin den platera bat mantenduko dut: ilarak denboraldiko patatarekin. Zaporearen gainean lan egin nahi dugu, jendeari nolakoak diren azaltzeko».

Illarrako Kofradia sortu dute

Ekoizle, sukaldari eta gastronomo talde batek Illarrako Kofradia eratu dute, geure-geurea den eta une honetan sasoi betean dagoen produktu hau zientifikoki nahiz gastronomikoki zabaldu eta ikertzeko asmoz. Gipuzkoako lurzorua eta klimaren berezitasunak direla eta, leku egokia da lekale honen ekoizpenerako.

Illarrako semea Kofradiako kideak da: «Askotan galdetu digute zergatik eta zertarako sortu dugun. Produktuari eta produktoreari laguntzea da gure helburua. Lehen esan bezala, askotan ez da ekonomikoki edo produktzio aldetik behar bezala estimatzen baserriarren lana. Laguntzak ere ez dira behar diren bezalakoak. Orduan, sukaldariak eta baserriarrek elkartzera erabaki dugu eta komunikabidean laguntzaz lanean ari gara».

Baratzean ereindako haziak bezala, Kofradiaren lanak ere bere lehen fruituak eman ditu: «Iragan larunbatean poz handia hartu nuen, Tolosako eta Ordiziako azoketan ilar guztiak saldu zituztela jakin nuenean. Gure Kofradiaren aurkezpen ekitaldia eta gero gertatu da hori. Denon artean indar pixka bat egitea lortu dugu. Baina nik ez dut ilarrekin bakarrik lan egin nahi. Oro har baserriarrek egin nahi dut lan eta eurei lagundu. Azken 10 urte hauetan produktua galtzen ari da, erreferentzia guztiak ari dira galtzen. Ez dakigu noiz ateratzen den produktua ezta noiz bukatzen den ere. Horri buelta ematen hasi behar dugu».

Beste produktuak ere erosi nahi badakizu, bisitatu Euzko Jaurlaritzaren webgunea: www.euzkojaurlaritzakultura.com

Egia esan, ez daramatzu ezkerrean. Internet bidez erosteko, egiteko, baina BERRA!n erosten. Lagan webgunea erosteko proba, egin nahi, eta gurekin eratu bai produktua, eta bai zerbitzua.

27,00€ Erret. 10000 Euzko Herria, Basatik 4 iltzeratik

25,00€ Erret. 10000 Herriaren, Herriaren iltzeratik

Beste produktuak ere erosi nahi badakizu, bisitatu Euzko Jaurlaritzaren webgunea: www.euzkojaurlaritzakultura.com

www.euzkojaurlaritzakultura.com

plaza

plaza@euzkojaurlaritzakultura.com

www.euzkojaurlaritzakultura.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Afari turkiarra egingo dute hilaren 11n, Zerkausian

GASTRONOMIA • Datorren astelehenean hasiko da Illargi Coupage, gastronomía artearekin batuko duen ekimena. Hainbat osagai izango ditu jaiak, eta horietako bat, ostiralean, hilaren 11n, egingo duten afari turkiarra izango da. Zerkausiaren beheko solairuan izango da, eta sabel dantza ikuskizunaz ere gozatu ahalko da. Halaber, Turkiako produktuen saskia ere zozketatuko dute. Afarirako txartelak 45 euro balio du, eta Fronton jatetxean, Illargi eta Saikin tabernetan eta Tolosaldea Tour bulegoan eskuratu ahalko dira. Informazio gehiagorako 619 00 20 01 edo 943 65 29 41 zenbakietara hots egin daiteke.

Zuentzat eskulan dendan matrikulatzeko aukera

GIZARTEA • Zuentzat eskulan denda (Gernikako Arbola, 4) ume eta gaztetxoentzako uda ikastaro-etarako matrikula epea ireki dute. Ikastaroak uztailean izango direla jakinarazi dute. Izena emateko edota edozein zalantza argitzeko 943 65 03 59 edota 676 14 06 22 telefono zenbakietara hots egin daiteke.

Hiru lagun zauritu dira N-1 errepidean izandako auto istripuan

Ezbeharrak • Atzo goizean gertatu zen, Irurerako noranzkoan; gidariak positibo eman zuen alkoholaren frogan.

ERREDAKZIOA

Hiru lagun zauritu ziren atzo goizean, N-1 errepidean, Irurerako noranzkoan izandako auto istripuan. 08:30ak zirenean gertatu zen ezbeharrak. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailetik adierazi zuten, autoa errepidetik irten ostean irauli egin zen, eta barruan zihozten hiru pertsonak atera ezinik geratu ziren. Sorospen zerbitzuek bertatik ateratzea lortu zutenean Donostia ospitalera eraman zituzten hiru zaurituak. Bertan autoren gidariari alkoholaren frogan egin zioten eta emaitza positiboa izan zen.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82



Taldeka ariko dira graffitiak eta muralak egiten. ESTI EZEIZA

GKo galeriak lehen Graffiti eta Mural Lehiaketa antolatu du

Kultura • Ekainaren 18an eta 19an izango da, eta 17 urtetik gorako edonork parte hartu ahalko du; sari potoloak eskura daitezke.

ERREDAKZIOA

Tolosa Beantatuz izenburupean lehenengo Graffiti eta Mural Lehiaketa antolatu du GKo galeriak, Tolosako Udalaren laguntzarekin. Ekainaren 18an eta 19an izango da eta sari erakargarriak prestatu dituzte irabazleentzat.

Lehiaketa honetan taldeka ariko dira parte-hartzaileak. 20 talde-erentzako muga ezarri dute, eta horiek 20 horma erabiliko dituzte margotzeko. Ekainaren 18an, 16:00etan hasiko da lehiaketa, eta hurrengo egunean 18:00etan amaituko da. Teknika librean ariko dira artistak, baina guztiak gai bera izango dute ardatz, sua, hain zuzen ere.

17 urtetik gorako edonork hartu ahalko du parte ekimen berri honetan, eta izena ematean hormetan eginiko bi lanen argazkiak erakutsi beharko dituzte. GKo gale-

rian eman beharko da izena, *gari-koitz@gko-gallery.com* helbidean, hain zuzen.

Sari potoloak

Parte-hartzaile guztien artean bost sari banatuko dituzte. Lehen taldearentzat 1.800 euroko saria izango da; bigarrenarentzat 800 eurokoa; hirugarrenarentzat 350 eurokoa; laugarrenarentzat mtn pack-a; eta bosgarrenarentzat Eceiza etxearren produktuen saskia.

Elkartruketik sortutakoa

Bestalde, ekainaren 14ra arte ikusgai dago GKO galerian *Vuelta de Chile: carnet de voyage* erakusketa. Republicv ekimena Txileko KilturV, Frantziako Spacejunk eta Euskal Herriko GKO galeriako artistek osatzen dute. Hala, 2008ko azaroran, hainbat txiletar artista izan ziren Frantzian eta Euskal Herrian euren lanak erakutsiz, eta ondoren, Tolosako galeriakoak ere Txilen izan ziren euren dakitena egiten. Bada, hiru lurraldeen arteko artisten elkartruketik sortutako ekarpena jasotzen du erakusketak honak.

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95



Txapeldunorde Zubietako zelaian

KIROLA • Iragan larunbatean Zubietan, Realak antolatutako txapelketa jokatu zen. Tolosako kadete neskek parte hartu zuten eta hiru partidur irabazi ondoren finalera heldu ziren. Finala, Añorgaren aurka jokatu zuten, eta tolosarrak fin aritu baziren ere, berdinketarekin bukatu zen partida. Penaltietan, berriz, 3-2 galdu zuten, txapeldunorde geratuz. HITZA



Jubilatuaren txapelketa «bikain»

GIZARTEA • Pasa den astean Gipuzkoako Jubilatuen arteko Txapelketa jokatu zuten Altzan. Tolosak ere izan zuen ordezkaria txapelketan. Santos eta Sandoval dominoan aritu ziren, eta txapeldunorde geratu ziren, donostiarren atzetik. Juan Bautista Aranzabe *Mate*, berriz, xakean aritu zen, eta irabazi egin zuen, finalean ordiziarrei gailenduta. HITZA



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak, 2010.eko maiatzaren 10ean egindako bilaren hurrengo plana hasiera batez, baldintzekin, onestea erabaki zuen:

14.3 Berazubi Ikastetxea azpiesparruko xehetasun azterlana

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 98. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea HOGEI EGUNez jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoiak hau da: nahi duenak dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Berrian argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaletxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosa, 2010eko maiatzaren 26an.

ALKATEA.

Herriarteko txapelketan asteburuan Altsasu izango dute aurkari

Leitza » Nafar jokoetan, Elgetako txapelketan eta HITZakoan ere lehiatuko dira asteburuan Aurrerakoak.

ERREDAKZIOA

Nafarroako herriarteko txapelketak aurrera jarraitzen du, eta Leitzako pilotariak beste ligaxkako beste jardunaldi bat izango dute asteburu honetan. Oraingoan, Altsasukoak izango dituzte aurkari.

Gaur, 17:00etan hasiko da jubilenen partida eta Altsasuko pilotalekuan izango da. Gainontzeko norgehiagokak, hau da, alebin, infantil eta nagusienak bihar izango dira, ordu eta toki berean.

Elgetako txapelketa ere ari da jokatzen, eta hor, Anartz Olano kadetea, Artolaren aurka lehiatuko da gaur, 20:30ean.

Hitz txapelketa hasi da jada eta honen baitan, gaur Aurrerako Ander Gartziarena eta Ander Eskudero infantilek, Larrea eta Peña izango dituzte aurkari. Partida Bidegoianen jokatu da 19:00etan.

Nafar jokoetan, lau partida jokatu dituzte bihar Aurrerako pilotariak. 10:00etan hasiko dira hauek, eta infantilenak izan ezik, gainontzekoak Leitzako Amazabal pilotalekuan izango dira. Benjaminetan, Joseba Eskudero eta Naia Eskudero, Oberena B-koen aurka lehiatuko dira. Alebinetan, Ander Alduntzin eta Beñat Altzeilaik osatutako bikoteak Zugarralde D-kobikoak izango du aurrez aurre.

Azkenik, Ander Eskudero eta Ander Garziarenak Esteribar A-koek aurka jokatu dute.

Burlatakoan bestalde, Zugarralde G-koen aurka lehiatuko dira Julen Goikoetxea eta Mikel Eraso gazteak.

Ina Zeberio omenduko dute

Lizartza » Hamabi urte igaro dira tiroketa batean ertzainek hil zutenetik; bihar Gernikan eta etzi Lizartzan izango dira ekitaldiak.

ERREDAKZIOA

Hamabi urte igaro dira Ina Zeberio ETako kidea Gernikako Pablo Picasso kaleko etxebizitza batean (Bizkaia) Ertzaintzarekin izandako tiroketa batean hil zenetik. Egun horretan hainbat ertzain etxebizitzan sartu eta Ina Zeberio, 20 tiroz hil zuten. Aldi berean, Patxi Markes eta Iñaki Bilbao atxilotu zituzten. Ordutik, dozena bat urte igaro badira ere, bere herrian

ez dute ahaztu eta beste behin ere gogora ekarriko dute urteurrena.

Bihar Gernikara joango dira Lizartzarrak. Han, ohi bezala, senideek lore eskaintza egin dute herriarra hil zuteneko etxearen aitariaren aurrealdean. Ekitaldi berezi hau 12:30ak aldera egingo dute. Egun bat beranduago, igandean, Lizartzan beste omenaldi bat egingo diote. 09:00etan plaza tik abiatu eta Axurdariora mendi martxa egingo dute. Eguerdian, 13:00ak aldera berriz, ekitaldia egingo dute bere omenezko monolitoaren aurrean. Amaitzeko, eguerdian, 14:30ean, bazkaria egingo dute elkartean. Bertara joan nahi dutenek, txartelak herriko tabernetan erosi ditzakete.



Beste behin, Lizartzan eta Gernikan egingo diote omenaldia Zeberiori. HITZA

Saralegi eta Arrospide txapelaren bila, bihar

Aizkora » Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako finalak jokatu dituzte Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketa, Eusko Label Sariko final handiak jokatu dira bihar gauean Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan. 22:30ean hasiko da XIII. edizio honetako azken saioa. Hiru mailatakoak ariko dira aizkorian, jubenilak, 23 urtez azpikoak eta elitekoak. Hauetatik bitan, eskualdekoak joango dira txapelaren bila.

Jubenil edo gaztetxoan mailan, Eneko Saralegi leitzarra eta Eloy Corchero Araiakoa izango dira aurrez aurre. Sei enbor moztu behar-

ko dituzte hauek, lau era ezberdinetan.

23 urtez azpikoetan berriz, Olatz-Mutrikuko Ugaiz Mugerza eta Berako Ohian Larretxea lehiatuko dira. Hauek ondorengo lana egin beharko dute: 10 mozketa, bost modalitatetan.

Urrezko mailan, elitekoetan eskualdeko beterano bat ariko da lehian txapelaren bila. Joan den urteko finala errepikatuz, elkarren aurka ariko dira Anjel Arrospide eta Floren Nazabal. Oraingoan, errebantxa hartu nahiko dio leaburuarrak etxarriarri. 12 enbor moztuko ditu bakoitzak, sei era ezberdinetan. Honenbestez final ikusgarria izango da biharkoa. Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketa, Eusko Label Sari Nagusia telebistaz ere ikusi ahal izango da, ETBk igandean eskainiko baitu.

Laburrak

Uzturpeguna ospatuko dute bihar, ikasturtea agurtzeko

IBARRA » Ikasturteari amaiera emateko egun batzuk besterik ez dira falta, eta hau ospatzeko, urtero bezala, Uzturpeguna antolatuko dute ikastolakoek. Bihar bertan izango da jai. Goizean Jaialdiarekin ekingo diote, bertan haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartuko dutelarik. Ondoren, pilota finalak jokatu dituzte eta bazkaria egingo dute. Egunari amaiera emateko, arratsaldean toka, puzgarriak, dantzaldia eta sokatira saioak izango dituzte. Hala, Uzturpe ikastolakoek ikasle ohi eta guraso guztiak gonbidatzen dituzte festan parte hartzera.

San Sebastian ermitaren konponketarako laguntza

BERASTEGI » San Sebastian ermitari teiatu berria jarri diote. Honetarako 12.000 euro gastatu dituztelarik. Hori dela eta, gastuari aurre egiten laguntzeko eske bereziak egingo dituzte datozen hilabeteetako zenbait igandetan. Hilabete bakoitzeko elizkizun batean bilduko dute dirua, hain zuzen ere. Honekin erretila ordaindu nahi dute. Mezara joan ezin duenak, hala ere, beste modu batera ere eskaini dezake laguntza, Berastegiko Parrokiak Kutxan duen kontu korrontean dirua sartuta, hain justu. Baina bertan dirua San Sebastian ermitarako dela zehaztu beharko dute ordaintzen dutenek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Sagardoa dastatu eta aztertzeko aukera, gaur

Albiztur » 19:00etan Ostatuko arkupean izango da dastatzea; sagardoaren inguruko bideo emanaldi bat ere eskainiko dute.



Tolosan urtero egiten dute sagardo dastatzea. R. CALVO

ERRDAKZIOA
Kultur Astearen baitan sagardoa dastatzeko eta aztertzeko aukera izango da gaur, 19:00etatik aurrera Ostatuko arkupean. Eskualdean Sagardo Txapelketak antolatu izan dira, Tolosan adibidez, baina Albizturten lehen aldiz eskainiko dute sagardoa dastatzeko aukera.

Etnologo baten laguntza
Sagardoaz elkar arte elkarriko dituzte sagardo ezberdinak eta etnologo baten laguntzarekin, bertan bildutakoek sagardoaren nolokotasunak aztertuko dituzte. Sagardoak zer duen eta zer falta zaion ikasiko dute, hortaz. «Sagardoren hizkuntza propio ulertzea

da helburua», aipatu du Millan Telleria, antolatzaileak. «Sagardoa gazi-geza edo gazi-goza dagoen identifikatzea, eta ez normalean diogun bezala, sagardo hau ona dago edo txarra dago» ikasiko

dute Telleriaren hitzetan. Honez gain, sagardoaren inguruko bideo emanaldi bat ere eskainiko dute. Ordu t'rdi irauango du ekitaldiak eta amaieran pintxoak banatuko dituzte.



Odriozolaren askatasunaren alde

TOLOSA » Pello Odriozola eskualdeko askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egin zuten Trianguloan, hemendik aurrera bertan bilduko dira hileroko. Odriozola Lizardi Elkarteko bazkidea da eta bere kideez gain, herritarrek ere kalera ateratzeko, espetxean 22 urte daramatzala salatzen. A. IMAZ

Laburrak

Independentistak sarearen ezbartaba, bihar 11:00etan

TOLOSA » Independentistak sareak lanean jarraitzen du eta hurrengo bilkura bihar egingo dute 11:00etan Kultur Etxean. Gainerako bilkuren berri ere bertan emango dute.

Artisautza Azoka Trianguloa plazan

TOLOSA » Asteburuan zehar Artisautza Azoka erongo da Trianguloa plazan. 20 artizan postu jarriko dituzte, tartean hiru tolosar erongo dira: Tartalo, Zuentzat eta Arantza Munita.

tolosaldea.hitza.iragarkilaburrak.com

Astelehenetik ostiralek 15:00ak arte jarraitzen dugu ikasle argibiderako dira. RAGARRAK BARTZELD: www.tolosalehitza.iragarki.com / 943-657956 telefonoz eskaintzen dira.

Higitzaileak
ETXEREGITZAK
SALDU

Tolosa. (Voth-Gorosti) Eraldiaren berriko etxebizitza berrito (75m²). Promozioaren bidez azkeneko prest egingo diren etxebizitza berriak. Sakalde eta 2 korrika ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argibitoa. 2terrasa edo era baita txostenoa ere. Gargoen erantserari. Pasaia salmentara. 658-72 92 88.

IRKALAK
SALDU

Irura. Lokala Iruran, Leskibar baliara, N-1 ondoan. 118 m² eta 78.000 euro. Interesatuta dago 645-72 19 47 edo 635-20 17 05 telefono zabalituta edo idatzi igorremetara: @yagoa.en.helbideak@

tronicos.
Lanaregositzaileak
LANERAKIAK
PERTSONAK ZAHINDU

Tolosa. Urtan urteko zehar prest egingo diren etxebizitza berriak. Esperientziadun neska eskualdiar bat. Hurrengoan tokiko dago 680-34 23 58 telefono zabalituta.

LANERAKIAK
OSTIRALTZA

Amezketa. Amezketa-ko jatorri baten, zehar bitartea behar du astebehar-tan eragile. Interesatuta dago 605-72 77 30 telefono zabalituta.

KANPOKAK
UREAN

Harremanak

BDTXEA KONPARTITU

Zarautzera laneragositzaileak. Zarautzera laneragositzaileak Tolosaldeko edota Golemitik jatorriko jende biltzaileak. Itxura: 07:00etatik 08:00etara eta itzulera 15:00etatik 16:00etara. Hurrengoan tokiko dago 688-60 67 15, 656-76 13 66 edo hpodjoo@ehu.es.

Leku hau zure iragarkiarekin zain dago.

ARAAMBURU Daxor Administrazioa eta Higiezen Agentzia
943-65 17 13 / 677-46 09 16

ALOKATZEKO

- Etxeak Amaren, San Francisco eta Laner, Tolosan.
- Gargak San Francisko, Anka etxer, Laner eta Irurita. Zabitzen, zuzeneko salmentaren.

SALGI

- Etxebizitza, Laner eta, iragarkiarekin, iragarkiarekin.
- Etxebizitza, Eraberritzea Iruran. 20 milioi pta.
- Etxebizitza, Iruran. Zuzeneko salmentara. Irurita eta.
- Gargak berrak eta berrak Amaren Tolosan. Irurita eta Iruran.
- Lokala. Gogoi plaza, Tolosan.

SEAT

Auto / ARTIBAI / .l.
SEAT - AUDI - VOLKSWAGEN

BMW 320I CJ FULL EQUIPE
11.000 euro

SEAT LEON 2000 TDH 140 zubi
2007ko modeloa. Gris / 12.900 euro

SEAT LEON TDI 165 ZALDI BERRIA
16.300 euro / Finantzazio 50 interes.

SEAT LEON 2000 TDH 148 zubi
2007ko modeloa. Zilar kolorekoa / 12.500 euro

AMERICAN KARNETE GABEKO AUTOA
1.500 euro

Urtekoak zuzenean • Morkina-Ribera
Tel.: 94-615 77 14 / Fax: 94-616 77 69

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL

ALDIBATEKO LANA

Sempere, 7 (parke komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48

Bueltan lan eskaintza:
www.ikolanaldi.com

Etxebizitza
Higiezen zerbitzuak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKAZIEN

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, eskalera, berdegune, 1.200 m² antzinaro 2 logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEGI 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEGI 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

BEASAIN Puzos 100 m² 2. logela, egongela, sukalde, berdegune, 100 m² terrazak.

A M A

inmobesogasti
SAHETAK - ERORITAK AKOZAK - ASKORILAK

Figueras, 13 - 201-50 Villavieja
Tel: 943-57 28 56 / Fax: 943-57 28 57
www.inmobesogasti.es

KULTUR
B I C A I A K

KUBA KAZIARRA Hegaldun, 50m² 4k hoteleko (suak), berdegune, baldak, zubiak.

ZUBEROA Hala ere suak eta zelazko berdeguneak.

BADAJAZ Hala ere suak eta zelazko berdeguneak.

IRURITA Hala ere suak eta zelazko berdeguneak.

- India. 12 egun 4240 € hoteleko
- Myanmar. 14 egun 980€ hoteleko
- Norvegia. 12 egun 890€ hoteleko
- Hegandiak. 12 egun 750€ hoteleko
- Mexikoko. 14 egun 890€ hoteleko
- Belgikako. 12 egun 1.370€ hoteleko (berdeguneak)
- Gargak eskaintza. Apartamentuak, auto eta zuzentzen eskaintza, lanerako, berrak.
- Europa ostaldea eta lanerako

943-29 70 35 • info@kulturaak.com
www.kulturaak.com

Salbide
SALBIDE
Higiezen zerbitzuak

Bizkaia kalea 4 • 20800 Zarautz
Tel: 943-01 07 00 • Fax: 465-71 85 95
www.inmobesogasti.com

Aitzarazabal. 3 logelako etxebizitza. 10 metroko koadroko trasteroarekin. Oso ondoan. 33.000.000 peseta.

Zarautz. Aden-Porta Logela berrak etxe handia. Alta eta bieta etxeak. Trasteroarekin eta logela. 47.000.000 peseta.

Zarautz. Irura plaza. 3 logelako etxebizitza. Egoera onan. Sista etxerak. 58.000.000 peseta.

Zarautz. Vista Alegre. 2 logela eta terraza handia. Irurita. 49.500.000 peseta.

Zarautz. Iruritan Logela bat eta berdegune. Irurita eta trastero baki baki. Oso ondoan. 41.500.000 peseta.

Zestoa. Arroz behe. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 peseta.

Getaria. Hurrengo kalea. 3 logela eta 2 berdegune etxebizitza. Trasteroarekin. Egoera onan. 41.500.000 peseta.

Aia. Erakuntza berrak. 3 logela. 2 berdegune eta 127m² terraza. 46.588.000. peseta.



21°
11°

GOIZA LAINOAK
ARRATS. EKAITZA
BEROENA 26°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Israelen aurkako mezuak gurean ere

TOLOSA » Beste hainbat herritan bezala, Israelen aurkako mezuak entzun dira eskualdean ere. Hain zuzen ere, herenegun elkarretaratzea egin zuten Trianguluan, eta bertan «Israeli boikot» esan zuten 40 lagun inguruk. Ekintza honekin Israelen solidario internazio-

nalisten ontzietan eginko erasoak salatzen zuten. Hala, Askapenak azaldu duenez, Israeli boikot egun bat ere ezarri dute, ekainaren 5a, hain zuzen, eta herritarrei dei egiten die Palestinaren aldeko ekartasuna eta Israelen kontrako boikota zabaldu dezaten. A. BELAUNTZARAN

Vasongada ehorztetxeak prest du irudi berria

Tolosa » Asun Martinez eta Mertxe Goya gehitu dira lantaldera; Kalitateko Ziurtagiria lortuko dute aurki.

ERREDAKZIOA

Azken urteetan eskualdean erreferentziala izan den Funeraria Vasongada Ehorzketak Kondeko Aldapako instalazioak eraberritu ditu. Eraberritzearekin «xarma berezia» eman diete instalazioei, «espazio ez hotz baizik abegitsu» sortuz. Era berean, Asun Martinez eta Mertxe Goya lantaldera gehitu direla nabarmendu behar da, «familiak behar duen goxotasuna eta gertutasuna» eskainiz. «Estereotipoak hautsi eta bi emakume ausart hauek kalitatea eskatzen duen lan honetara egokitu dira», argitu dute. Aurki, ondo egindako lanaren adierazle den Kalitateko Ziurtagiria ere eskuratuko du Vasongadak.

A Agenda

Kultur Aroa

■ **Leitza.** Pagoen mugarraketaren zergatia eta historia azalduko dute Trepalariet Aurrera elkarteak 20:00etatik aurrera, eta 00:00etan Makulu Ken taldearen afro-musika kontzertua eta ondoren Dja, Torrean.

Jaiak

■ **Anoeta.** 10:00etan XII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketa finalak; 11:00etan herriko Jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan, Alkartasuna Elkarteak antolatutak; 16:30ean buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariekin; 18:00etan ume eta heduen Play-Back-a plazan; 22:30ean Anoeta-ko helduen dantza taldearen ikuskizuna kiroledegian (txikiak bi pieza ere dantzatuko dituzte). Loatzoko Musikariez lagundurik; 00:00etan kontzertua plazan Ze esatek eta Bizardunak taldeekin.

Kirola

■ **Alegia.** VI. Kirol Astearen barruan, gimnastika erritmikoko erakusketa Kultur Etxeko batzar aretoan, 18:15ean.

■ **Asteasu.** Igandean kirolari atekak zabalik eguna: 10:00etan kiroledegiko instalakuntzen erabilera libre; 11:00etan Ciclo Indoor saioa frontoian, gazte eta helduentzat. Inskripzioak kiroledegian egin behar dira, ekainak 4a bitarte. Doan izango da.

Azoka

■ **Tolosa.** Artisautza Azoka Triangulua plazan. 20 artisaupostu jarriko dituzte, tartean 3 tolosar (Tartalo, Zuentzart eta Arantza Munita keramika).

Zinema

■ **Asteasu.** VIII. Kirol Astearen barruan, *Bienvenidos a Belleville* filma, 18:00etan udaletxeko zine aretoan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

P Publierreportaia

OIHANE ZURIARRAIN ETA GARAZI ARTEAGOITIA

ITZULNET-EKO ARDURADUNAK



«Bezeroen beharretara egokitutako itzulpen zerbitzuak»

Tolosa » Bi neska gazte hauek itzulpen enpresa sortu berri dute; San Frantzisko kaleko 11. zenbakian topatuko dituzue.

ERREDAKZIOA

Nola otu zitzaizuen ideia?

Itzulpen munduan luze aritu ostean, duela gutxi erabaki genuen enpresa propioa sortzea.

Zein motako lanak egiten dituzte?

Itzulpenak egiten ditugu batik bat, hainbat arlotan: administrazioa, teknologia, zientzia... Zuzenketak eta berrikusketak ere egiten ditugu eta software eta webgune lokalizazioa.

Zein hizkuntza eskaintzen dituzte?

Kombinazio aukera zabalagoa dugu, Europako hizkuntza nagusiak eta Espainiar estatuko hizkuntza kofizialak lantzen ditugu. Izan ere, bulegoan biok bakarrik aritu arren, jatorri askotako profesionalen osatutako lantalde handia dugu.

Zein da zuen balio erantsia?

Zerbitzu eraginkorra ematen dugu, oso prezio lehiakorretan, baina kalitateaz zainduta, betiere. Badakigu askotan bezeroak larri ibiltzen direla denborarekin, beraz,

garrantzi handia ematen diogu epeak betetzeari. Gainera, puntako teknologiak erabiltzen ditugu, gari eta formatu berriei egokitzeko. **Zein abantaila eta desabantaila duzue enpresa handiekiko?**

Enpresa txikia garenez, bezero bakoitzari garrantzitsua da; hortaz, bezeroen beharretara egokitzeko eta hurbiltasuna mantentzen saiatzen gara. Desabantaila dagokionez... agian, lan enkargu handiak hartzea zailagoa da, horregatik eratu dugu kolaboratzaile sare zabalagoa. **Internetez zerbitzuak ematen dituzte, ezta?**

Bai, online aurrekontuak eskatu daitezke eta salneurriak kontsultatu, konpromisorik gabe.

Zein da zuen bezeroen profila?

Mota askotako bezeroak ditugu: udaletxeak, enpresak, publikitate agentziak, kultura elkarteak... Azken finean, merkatua zabaldu nahi duenak hizkuntzak behar ditu, eta, gainera, gu eremu eleanitz batean bizi gara.

Nola ikusten duzue zuen burua etorkizunean?

Denborarekin, enpresa handitza da gure helburua, baina ez inperioa sortzea. Momentuz, jendeak enpresa ezagutzeko nahi dugu, eta epe luzera, bezero berriak lortu, ditugunak mantendu eta guztiak lan ibiltzen direla denborarekin, beraz,